

---

**Innobideak-Kudeabide 2021 Programa**


---

<b>Helburua</b> <b>(1. oinarria)</b>	Kudeaketa hobetzeko proiektuei laguntzea du xedea, proiektuok Kudeaketa Aurreratuko Ereduarekin bat badatoz eta lehiakortasuna hobetzeko balio badute. Eusko Jaurlaritzak, SPRIk eta EAEko hiru aldundiek kudeatzen duten plan bat da.
<b>Erakunde</b> <b>Onuradunak</b> <b>(4. oinarria)</b>	Nortasun juridiko propioa duten enpresak: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ egoitza sozial eta fiskala Bizkaian eta ekoizpen-zentro bat edo balio erantsi handiko bat Bizkaian izatea.</li> <li>▪ 5 langile edo gehiago eta 50 langile baino gutxiago izatea (lanaldi oso baliokidean).</li> <li>▪ jarduera sektore hauetan kokatuta egotea: industria, eraikuntza, garrarioa, industriarekin lotutako zerbitzuak, turismoa eta handizkako merkataritza (Dekretuaren eranskineko epigrafeen arabera).</li> </ul>
<b>Gehienez aurkez daitezkeen eskabideen kopurua</b> <b>(16. oinarria)</b>	Erakunde bakoitzak gehienez ere eskabide bat aurkez dezake.
<b>Diruz lagunduko den egitatea</b> <b>(5. oinarria)</b>	Kudeaketa Aurreratuko Hasierako Kontrasteari buruzko Txostenari erantzuten dioten finkatze-proiektuak (2B) diruz lagunduko dira, baldin eta proiektuotan aplikatu eta ezarriko diren metodologiek eta tresnek lehiakorrigo izateko aukera ematen badiote enpresari, Kudeaketa Aurreratuko Ereduarekin bat. Horretarako, enpresek alde zuzenetik egin beharko dute hasierako kudeaketa Kontrastea, <a href="http://www.kudeabide.com">www.kudeabide.com</a> helbidean eskatzen dena
<b>Diruz lagundu daitezkeen gastuak</b> <b>(8. oinarria)</b>	Kanpoko aholkularitza-enpresekin kontratatzea hartuko da diruz lagundu daitezkeen gastutzat, baldin eta gastuon xedea kudeaketa hobetzeko aurkeztu den proiektuaren barruko jarduketak egitea bada.
<b>Laguntzen zenbatekoa</b> <b>(7. eta 20. oinarriak)</b>	Diruz lagun daitezkeen gastuen % 60 - Gehienezko dirulaguntza 7.200 euro Diruz lagun daitezkeen gastuen %40 aurreko hiru ekitaldietako bitan Kudeabide programan % 60ko dirulaguntza lortu duten enpresen kasuetan - Gehienezko dirulaguntza 4.800 euro. Emango den kopuruaren % 100a laguntzaren emakida onetsitakoan ordainduko da.
<b>Araudia eta diru-laguntzak emateko araubidea</b>	56/2021 Foru Dekretua, maiatzaren 4koa (BAO 85zk. 2021eko maiatzaren 7koa). Emakida lehia askearen araubidean (emate indibiduala, osatutako eskaeren jasotze-hurrenkeraren arabera)
<b>Epeak</b> <b>(9. eta 15. oinarriak)</b>	<b>Diru-laguntza jasotzen duten proiektuak:</b> 2021eko urtarrilaren 1etik eta 2022ko urriaren 1era arteko epean, biak barne. <b>Eskabideak aurkezteko epea:</b> 2021eko maiatzaren 10etik irailaren 30eko 13:30etara arte, Eskabidea Ekonomia Sustatzeko Saileko Bulego Birtualaren bidez egingo da ( <a href="http://www.bizkaia.eus/sustapena-oficinavirtual">www.bizkaia.eus/sustapena-oficinavirtual</a> ). Horretarako, sinadura elektronikoa eduki beharko duzu (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA...), edo B@kQ ziurtagiri elektronikoaren bitartez sartu. B@kQ ziurtagiria gure bulegoetan eska daiteke, Orueta Apezpikua kaleko 6an.

Ekonomia Sustatzeko Saila  
 Berrikuntza Zerbitzua,  
 Orueta apezpikua, 6. 48009 Bilbao

Argibideak:  
 Tf.: 94 406 8008  
[berrikuntzazerbitzua@bizkaia.eus](mailto:berrikuntzazerbitzua@bizkaia.eus)  
[www.bizkaia.eus](http://www.bizkaia.eus)

EGEF  
 FEDER

Eskabide Garapenerako  
 Europar Funtzua  
 Fondo Europeo  
 de Desarrollo Regional

